

§A3

**NORMA FORAL 4/1985,
DE 28 DE JUNIO,
REGULADORA DE LA
INICIATIVA NORMATIVA
POPULAR**

**EKAINAREN 28KO 1985/4.
FORU ARAUA,
ARAUGINTZARAKO
HERRI EKIMENAREN
ARAUPETZAILEA DENA**

NORMA FORAL 4/1985, DE 28 DE JUNIO, REGULADORA DE LA INICIATIVA NORMATIVA POPULAR

(BOSV nº 169, de 24 de julio de 1985)

EXPOSICION DE MOTIVOS

El Estatuto de Autonomía para el País Vasco, ley orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, establece en su artículo 37, apartado 3, letra a), como competencia exclusiva dentro de sus respectivos territorios la “organización, régimen y funcionamiento de sus propias instituciones” a los Territorios Históricos, dentro de la cual está incluida la de regular la iniciativa de normativa popular.

Igualmente la iniciativa de normativa popular podrá ser ejercida por todos los ciudadanos de Bizkaia, según se contempla en el apartado 3 del artículo 103.1 del Reglamento de las Juntas Generales de Bizkaia.

La intervención de los ciudadanos de Bizkaia en los asuntos públicos es elemento esencial del sistema político democrático, manifestándose de forma relevante en el derecho a adoptar la iniciativa normativa ante las Juntas Generales de Bizkaia, amparándose en el artículo 9.2 de la Constitución, que establece “la participación de todos los ciudadanos en la vida política, económica, cultural y social”.

La iniciativa normativa popular permite instrumentar la directa participación de los ciudadanos en la tarea de elaboración de las normas que rigen la vida de los ciudadanos y posibilita la apertura de vías para proponer a las Juntas Generales la aprobación de normas cuya necesidad es ampliamente sentida por el electorado.

Se trata de regular el ejercicio de la iniciativa normativa popular, respetando el papel institucional de los partidos políticos como órganos de manifestación de la voluntad popular e instrumentos fundamentales de la participación política.

En el contenido se regula el establecimiento de la admisibilidad de la Proposición de Norma Foral por parte de la Mesa de las Juntas Generales; la garantía de la regularidad del procedimiento de recogidas de firmas; la tramitación reglamentaria de la Proposición y, por último, la posibilidad de compensación económica a los promotores de la iniciativa.

Artículo 1.

La iniciativa normativa popular, prevista en el apartado 3 del artículo 103.1 del Reglamento de Juntas Generales, podrá ser ejercida por todos los ciudadanos de Bizkaia que se encuentren inscritos en el censo electoral, según lo dispuesto en esta Norma Foral.

Artículo 2.

La iniciativa normativa popular se ejercerá a través de la presentación ante la Mesa de las Juntas Generales de una Proposición de Norma Foral, articulada y motivada, suscrita por la firma de, al menos, 20.000 (veinte mil) electores.

EKAINAREN 28KO 1985/4. FORU ARAU, ARAUGINTZARAKO HERRI EKIMENAREN ARAUPETZAILEA DENA

(169 zenbakidun BJBO, 1985.eko uztailaren 24koa)

ZIOEN AZALPENA

Euskal Herriarentzako Autonomi Estatutuak, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak, 37. artikulua 3. ataleko a) letran lurralde historikoei ezartzen die “beren instituzio propioen antolamendu, erregimen eta jardupidea” eskumen eskuliboa lege beraiei dagozkien lurraldeetan; eta eskumen horren barruan dago araugintzarako herri ekimena araupeztekoa.

Era berean, araugintzarako herri ekimena Bizkaiko hiritar guztiak egikaritu ahal izango dute, Bizkaiko Batzar Nagusietako Araudiko 103.1. artikulua 3. atalean araupezen denez.

Bizkaiko hiritarrek herri arazoetan esku hartzea sistema politiko eta demokratikoaren funtsezko osagaietarik bat da, eta esku hartze hori nabarmen ageri da Bizkaiko Batzar Nagusietan arauak emateko ekimena hartzeko eskubidean; horretarako babesa Konstituzioaren 9.2. artikuluan ezartzen da: “hiritargoen parte hartzea erraztea bai politika mailan, bai ekonomia, kultura eta gizarte mailan ere”.

Araugintzarako herri ekimenak errazten du bidea, hiritarrek eurek esku har dezaten, hiritarren bizia eraentzen duten arauak gertatzeko atazan; horrezaz gainera, bideak zabaltzeko ahalbidea ematen du, hautesleek nagusi behar dituzten arauak onesteko, Batzar Nagusietan proposatzeko.

Araugintzarako herri ekimenaren jarduna araupezu behar da, herriaren borondatea agertzen duten erakundeak eta parte hartze politikoaren funtsezko tresnak lege alderdi politikoaren erakunde zeregina zainduaz.

Edukian ondokoak araupezu dira: Batzar Nagusietako Mahaia foru arauen proposamena onartzeko ezarpena; sinadurak biltzeko prozeduraren erregulartasunaren bermea; proposamenaren arauko tramitazioa; eta, azkenik, noiz eman lekiekeen ekimenaren eragileei konpentsazio ekonomikoa.

1. artikulua.

Batzar Nagusietako Araudiko 103.1. artikulua 3. atalean ezarritako araugintzarako herri ekimena hauteskunde zentsuan inskribaturik dauden Bizkaiko hiritar guztiak egikaritu ahal izango dute, foru arau honetan xedaturikoaren arabera.

2. artikulua.

Araugintzarako herri ekimena honela egikaritu da: Batzar Nagusietako Mahaiari aurkeztuko zaio foru arauaren proposamena; eta horrek artikulua izan behar ditu, bai eta zioak ere, eta hoge mila (20.000) hautesle sinatu beharko dute gutxienez.

Artículo 3.

No podrán ser objeto de la iniciativa normativa popular las siguientes materias:

- a) Aquellas sobre las que el Territorio Histórico de Bizkaia carezca de competencia normativa.
- b) Las de carácter tributario.
- c) Las referentes a los Presupuestos Generales del Territorio Histórico, sus cuentas generales y, con carácter definitivo, las operaciones financieras y de crédito.
- d) El Plan Foral de Obras y Servicios.
- e) El Régimen General de Tutela Financiera de las Corporaciones Locales.
- f) Organización y división político-administrativa del Territorio Histórico.
- g) El Régimen Electoral previsto en el artículo 7. a) 1 y 2 de la Ley de Territorios Históricos.
- h) Promover la iniciativa legislativa del Territorio Histórico ante el Parlamento Vasco.
- i) La regulación de la Iniciativa Normativa Popular.
- j) Todas aquellas materias reguladas en Normas Forales que requieran un “quórum” especial para su aprobación o modificación.

Artículo 4.

El escrito de presentación de la Proposición de Norma Foral deberá contener:

- a) La relación de miembros que componen la Comisión Promotora, con expresión de sus datos personales y el Acta Notarial de su constitución, así como el domicilio de la misma que designen a efectos de notificaciones.
- b) La presentación de la iniciativa contenida en un documento, en el que se expondrán las razones que, a juicio de los firmantes, aconsejan la tramitación de la Proposición.
- c) El texto articulado de la Proposición, precedido de una exposición de motivos y acompañado de los antecedentes necesarios para pronunciarse sobre la misma.

Artículo 5.

Dará comienzo el procedimiento mediante la presentación de la documentación exigida en el artículo anterior ante la Mesa de las Juntas Generales, a través del Registro de las mismas.

Si la iniciativa se presentara fuera del período de sesión de las Juntas Generales, los plazos empezarán a computarse a partir del día primero del período siguiente a la presentación de la documentación.

Artículo 6.

Corresponde a la Mesa de las Juntas Generales rechazar o admitir a trámite en primera instancia las iniciativas presentadas por los ciudadanos, con arreglo al siguiente procedimiento:

3. artikulua.

Araugintzarako herri ekimenak ezin hartu izango ditu hurrengo gaiak:

- a) Bizkaiko Lurralde Historikoak araurik emateko eskumenik ez duenekoak.
- b) Tributu izaerazkoak.
- c) Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorre, haren kontu orokorre eta, behin eta betiko delarik, finantza eta kreditu-eragiketei dagozkienak.
- d) Obra eta Zerbitzuen Foru Plana.
- e) Toki Korporazioen finantzen babesaren araubide orokorra.
- f) Lurralde Historikoaren antolaketa eta banaketa politiko-administratiboa.
- g) Lurralde Historikoei buruzko Legearen 7. a) 1 eta 2.ean ezarritako hauteskunde araubidea.
- h) Lurralde Historikoaren lege-ekimena Eusko legebiltzarrean eragitea.
- i) Araugintzarako herri ekimena araupetzea.
- j) Foru arauetan araupetzen diren gaiak, baldin eta beraiek onetsi zein aldaratzeko “quorum” berezia beharrezkoa bada.

4. artikulua.

Foru arauen proposamena aurkezteko idazkiak honakook izan beharko ditu:

- a) Batzorde eragilea osatzen duten kideen zerrenda, eta bertan norbere datuak eta eraketaren notari-akta, bai eta batzordearen egoitza, jakinarazpenak egiteko izendatzen dutena.
- b) Ekimenaren aurkezpena, idazki batera bilduta, zeinetan, sinatzaileen ustez, proposamenaren tramitazioa eragiten duten arrazoiak azalduko diren.
- c) Proposamenaren testu artikuluduna, aurretik zioen azalpena daramala, eta berberari buruz aldarrikatzeko beharrezko diren aurrerakinak erantsirik.

5. artikulua.

Prozedura hasido da, zelan eta aurreko artikuluan eskaturiko agiriak Batzar Nagusietako Mahaiari aurkeztuaz Batzar Nagusietako Erregistroaz.

Ekimena Batzar Nagusien bilkuraren epealditik kanpo aurkeztekotan, epeak konputatzen hasiko dira, noiztik eta hurrengo epealdiaren lehenengo egunetik aurrera.

6. artikulua.

Batzar Nagusietako Mahaiak ezetsi ala onartuko ditu hasieran hiritarrek aurkezten dituzten ekimenak, hurrengo prozeduraren arabera:

1. La Mesa de las Juntas Generales examinará la documentación remitida a los solos efectos de estimar si la misma está completa o si adolece de alguna omisión, por la cual dispone del plazo de 10 días.

2. Si la Mesa observase que la documentación recibida no está completa, requerirá de forma inmediata a la Comisión Promotora para que subsane la deficiencia en el plazo improrrogable de quince días, transcurridos los cuales sin verificarse, ordenará sin otro trámite se reintegre la documentación a la Comisión.

3. Una vez verificados los requisitos documentales, la Mesa decidirá sobre su admisibilidad en un plazo que, sumado al establecido en el apartado 1, no podrá superar, en conjunto, los treinta días.

4. Serán causas de inadmisibilidad de la Proposición:

- a) Que tenga por objeto alguna de las materias señaladas en el artículo 3.
- b) Que no se hayan cumplido los requisitos del artículo 4 o, en su caso, no se hayan subsanado los defectos.
- c) El hecho de que el texto de la Proposición verse sobre materias diversas carentes de homogeneidad entre sí.
- d) La previa existencia en las Juntas Generales de un Proyecto o Proposición de Norma Foral que verse sobre el mismo objeto de la iniciativa popular y que esté, cuando ésta se presenta, en el trámite de enmiendas u otro más avanzado.
- e) El hecho de que sea reproducción de otra iniciativa popular de contenido igual o sustancialmente equivalente presentada durante el mandato en curso en las Juntas Generales.

Artículo 7.

Las decisiones de los órganos de las Juntas Generales competentes, así como todas las incidencias que resulten de lo previsto en el artículo anterior, serán comunicadas a la Comisión Promotora y publicadas en los BB.OO. de las Juntas Generales y de Bizkaia.

Artículo 8.

1. Admitida la Proposición, la Mesa de las Juntas Generales lo notificará a la Junta Electoral Provincial de Bizkaia, a fin de que ésta garantice y controle la corrección de la recogida de firmas.

2. Una vez recibida la notificación, la Comisión Promotora presentará a la Junta Electoral Provincial los pliegos necesarios para la recogida de firmas.

Dichos pliegos deberán reproducir íntegramente el texto de la Proposición, salvo que la misma, por su extensión, superase las tres primeras caras de cada pliego, en cuyo caso se podrá reproducir el texto en pliego aparte, uniéndose al destinado a recoger las firmas, de modo que no puedan ser separados.

3. La Junta Electoral Provincial sellará y numerará los pliegos presentados y los devolverá de esta manera a la Comisión Promotora dentro de las 72 horas siguientes a su presentación.

1. Bidaltzen diren agiriak Batzar Nagusietako Mahaiak aztertuko ditu, zertarako-eta agiri horiek osorik dauden ala zerbait falta duten ikusteko bakarrik, horretarako 10 eguneko epea duelarik.

2. Mahaiak ikusten badu bidaltzen zaizkion agiriak osorik ez daudela, berehala eskatuko dio batzorde eragileari hutsaldi hori hamabost eguneko epe luzaezinean zuzendu dezan; egun horiek igarota, baina hutsaldia zuzentzen ez bada, beste tramiterik gabe agiriak batzordeari eramateko aginduko du.

3. Agirien aldetik dauden beharkizunak begiztatuz gero, Mahaiak epe bat izango du hura onartzen duen ala ez erabakitzeke; epe horrek gehienez hogeita hamar egun izango ditu, 1. atalean ezarritakoari gehituta ere.

4. Proposamena ez onartzeko kariak hurrengook izango dira:

- a) Gaitzat 3. artikuluan adierazitako gaietarik bat izatea.
- b) Laugarren artikulua beharkizunak ez betetzea edo, bestela, akatsak ez zuzentzea.
- c) Proposamenaren testua gai batzuei buruzkoa izatea, eta gai horiek euren artean zerikusirik ez izatea.
- d) Batzar Nagusietan herri ekimenaren gai berberari buruzkoa izan eta, hura aurkezten denean, emendakinen tramitean edo aurreratuagoko batean dagoen foru arauaren proiektu edo proposamena lehendik egotea.
- e) Batzar Nagusien agintealdiaren barnean aurkezturiko beste herri ekimen baten aldakia izatea, baldin eta beraren edukia berdina bada edo funtsean baliokidea bada.

7. artikulua.

Batzar Nagusien erakunde eskudunen erabakiak eta aurreko artikuluan ezarritakotik ateratzen diren gora-behera guztiak batzorde eragileari jakinaraziko zaizkio, eta Bizkaiko eta Batzar Nagusien aldizkari ofizialetan argitaratuko dira.

8. artikulua.

1. Proposamena onartzuz gero, Batzar Nagusietako Mahaiak Bizkaiko Probintziako hauteskunde batzari jakinaraziko dio hori, zertarako-eta batza horrek bermatu eta kontrola dezan sinadurak behar den moduan biltzen direla.

2. Jakinarazpena jasoz gero, sinadurak biltzeko beharrezko diren pleguak aurkeztuko dizkio batzorde eragileak Probintziako hauteskunde batzari.

Plegu horiek proposamenaren testu osoa agertarazi beharko dute, berberak, oso luzea izateagatik, plegu bakoitzaren lehen hiru orrialdeak gaintzen dituenean izan ezik, eta orduan testua aparteko pleguan agertarazi ahal izango da, eta erantsiko zaio sinadurak bildu behar dituenari, zertarako-eta elkarrengandik ezin bana daitezten.

3. Probintziako hauteskunde batzak zigilatuko ditu aurkezten zaizkion pleguak, eta zenbakiak ipiniko dizkie, eta modu horretan eskuratuko dizkio batzorde eragileari euran aurkeztu eta ondorengo 72 orduen barruan.

4. A fin de facilitar la certificación de la inclusión en el censo electoral de cada firmante, cada pliego deberá ser firmado por electores inscritos en un mismo municipio.

Artículo 9.

1. Junto a la firma de cada proponente deberá figurar su nombre y dos apellidos, número de D.N.I. y su domicilio. Al lado de cada firma se reservará un espacio para la certificación de la inclusión en el censo electoral.

2. La firma deberá ser autenticada por un Notario, por un Secretario Judicial, o por el Secretario del Municipio en cuyo censo se halle inscrito el firmante.

3. La autenticación deberá indicar la fecha y podrá ser colectiva, pliego por pliego. En este caso, junto a la fecha deberá consignarse el número de firmas contenidas en el pliego.

Artículo 10.

1. El procedimiento de recogida de firmas deberá finalizar con la entrega ante la Mesa de las Juntas Generales de los pliegos con las firmas recogidas, en el plazo de cuatro meses a partir de la fecha de notificación de la admisión.

2. La Mesa de las Juntas Generales dará traslado en el plazo de dos días a la Junta Electoral Provincial del Territorio Histórico de Bizkaia para que ésta proceda a la certificación de la inclusión en el censo electoral de cada uno de los firmantes y al posterior recuento del número de firmas en el plazo máximo de un mes.

3. La Comisión Promotora podrá recabar en cualquier momento de la Junta Electoral Provincial la información que es pertinente respecto del número de firmas recogidas.

Artículo 11.

1. Las firmas que no reúnan los requisitos exigidos en esta Norma Foral se declararán inválidas y no serán computadas.

2. Comprobado el cumplimiento de los requisitos exigidos para la válida presentación de la Proposición, la Junta Electoral Provincial elevará a las Juntas Generales certificación acreditativa del número de firmas válidas y procederá a destruir los pliegos de firmas que obren en su poder.

Artículo 12.

1. Recibida la notificación que acredite haberse reunido el número de firmas exigido, la Mesa de las Juntas Generales ordenará su publicación, actuándose, en cuanto a los demás trámites conducentes a la toma de consideración, de conformidad con lo previsto en el Reglamento de las Juntas Generales para las Proposiciones de Norma Foral.

2. La Comisión Promotora podrá solicitar de uno o varios Apoderados la defensa de la Proposición.

Si ningún Apoderado asumiera la defensa, lo habrá de hacer la Mesa de las Juntas.

4. Sinatzaile bakoitza hauteskunde zentsuaren barnean dagoela errazago ziurtatzeko, plegu bakoitzak udalerrri berean inskribaturiko hautesleek sinatu beharko dute.

9. artikulua.

1. Proposatzaile bakoitzaren sinaduraren ondoan haren izena eta bi deiturak, NANren zenbakia eta egoitza agertu beharko dira. Sinadura bakoitzaren aldean, sinatzailea hauteskunde zentsuaren barruan dagoela ziurtatzeko tarte bat utziko da.

2. Sinadura notari batek kautotu beharko du; edo epai idazkari batek, edo sinatzailea inskribaturik dagoen zentsuko udalerriko idazkari batek.

3. Kautotzeak data adierazi beharko du, eta talde bati egin dakiok, pleguz plegu. Orduan, dataren ondoan adierazi beharko da zenbat sinadura dagoen pleguan.

10. artikulua.

1. Sinadurak biltzeko prozedura amaitu beharko da, zelan eta bildutako sinadurak dituzten pleguak Batzar Nagusietako Mahaiari emanaz, noiz-eta lau hilabeteko epean, onarpena jakinarazten den egunetik hasita.

2. Batzar Nagusietako Mahaiak, bi eguneko epean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Probintziako Hauteskunde batzari eramango dizkio pleguak, zertarako-eta batzar horrek ziurta dezan sinatzaile guztiak hauteskunde zentsuaren barruan daudela, eta sinaduran zenbatzeko, gehienez hilabetean.

3. Batzorde eragileak edonoiz eskatu ahal izango dio Probintziako Hauteskunde batzari, bildutako sinaduren kopuruari buruz egokietzen duen informazioa.

11. artikulua.

1. Foru arau honetan eskaturiko beharkizunak betetzen ez dituzten sinadurek baliorik ez dutela adieraziko da, eta ez dira konputatuko.

2. Proposamena balioz aurkezteko eskaturiko beharkizunak bete direla frogatuz gero, Probintziako Hauteskunde batzari Batzar Nagusiei bidaliko die baliodun sinaduren kopurua benetakotzen duen ziurtagiria, eta berak dituen sinaduren pleguak deuseztatuko ditu.

12. artikulua.

1. Eskatzen diren sinaduren kopurua bildu dela benetakotzen duen jakinarazpena jasoz gero, Batzar Nagusietako Mahaiak hura argitara dadin aginduko du; eta foru arauen proposamenerako Batzar Nagusietako Araudian ezarritakoarekin bat jokatu da, kontutan hartuzera daramaten gainerako tramiteei dagokiela.

2. Batzorde eragileak ahaldun bati edo batzuei eskatu ahal izango die proposamena defendatzeko.

Ezein ahaldunek nahi ez badu hura defendatzerik, Batzarretako Mahaiak berak defendatuko du.

Artículo 13.

La iniciativa normativa popular que estuviere en tramitación en el momento de disolverse las Juntas Generales no decaerá, pero podrá retrotraerse al trámite que decida la Mesa hasta la publicación en el B.O. de las Juntas Generales u otro posterior.

Artículo 14.

Una vez recibida la notificación a que hace referencia el artículo 12 de esta Norma Foral, el Territorio Histórico de Bizkaia compensará a la Comisión Promotora de los gastos que, debidamente justificados, realizados en la difusión de la Proposición y la recogida de firmas, siempre que éstos no excedan de 1.500.000 pesetas. Esta cantidad se revisará periódicamente por las Juntas Generales.

13. artikulua.

Batzar Nagusiak desagiten diren unean, tramitatzen ari den araugintzarako herri ekimena ez da bertan behera utziko, baina Mahaiak erabakitzen duten tramitera arte ekarri ahal izango da atzera, Batzar Nagusietako Legezko Aldizkarian argitaratu arte, edo beste batera arte.

14. artikulua.

Foru arau honen 12. artikulua aipatzen duen jakinarazpena jasoz gero, Bizkaiko Lurralde Historikoak batzorde eragileari konpentsatuko dizkio gastuak, baldin eta behar bezala frogaturik badaude, eta proposamena zabaldu eta sinadurak biltzeko eginda badaude, baina gastu horiek ezin dute 1.500.000 pezetatik gorakoak izan. Kopuru horiek aldi berean aztertuko dituzte Batzar Nagusiek.

DISPOSICION ADICIONAL

Se autoriza a la Diputación Foral de Bizkaia a dictar las disposiciones para el desarrollo y cumplimiento de esta Norma Foral.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Bizkaiko Foru Aldundiari eskuespena emango zaio, foru arau hau garatu eta betearazteko behar diren xedapenak eman ditzan.

DISPOSICION FINAL

Esta Norma Foral entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el BOSV.

AZKEN XEDAPENA

Foru arau hau BJBOan argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

